

Aramaixo bizirik presenta cientos de alegaciones contra la central eólica de Statkraft

ARAMAIXO BIZIRIK :: 22/07/2023

La plataforma vecinal Aramaixo Bizirik ha presentado más de 400 alegaciones contra la central eólica prevista por la multinacional noruega Statkraft en los montes de Aramaio y Eskoriatza

[Euskara]

PRENTSA OHARRA:

ARAMAIXO BIZIRIKEK EHUNKA ALEGAZIO AURKEZTU DITU STATKRAFTEN ZENTRAL EOLIKOAREN AURKA

Aramaixo Bizirik herri plataformak 400 alegazio baino gehiago aurkeztu ditu Statkraft multinazional norvegiarrak Aramaio eta Eskoriatzako mendietan egin asmo duen zentral eolikoaren aurka.

Herri-alegazio hauek, Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztan aurkeztu dira eta bertan Trantsizio Ekologikorako Ministerioari eskatzen zaio "Proiektuaren informazio azterketa ez onartzea, interes orokorreko ez deklaratzeko eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen negatibo bat egitea".

Alegazioan jasotzen den bezala, zenbatezinak dira Durakogain, Ganborralde eta Asentsiomendi

batzen dituen mendilerroan kokatutako makro-proiektu honek Aramaio eta Debagoieneko biztanleengan eta biodibertsitatean izango dituen kalteen eraginak.

200 metroko 8 aerosorgailu dira martxan jarri nahi dituztenak eta orain arte EAEn proiektatu

den zentral eoliko handiena izango litzateke. Zarata, eguzki izpiek hegalekin talka egitean eragindako itzal intermitenteak, biodibertsitatearen galera atzeraezina eta eremu naturalaren

suntsiketa ekarriko du, Aramaio eta inguruetakoko paisaia guztiz itxuraldatuz.

782 hektarea baso eta mendi industrializatuko dira eta sortuko den elektrizitatea Abadiñon sareratuko da, Besaidetik barrena joango den 15 kilometroko goi-tentsioko ebakuazio linearen bitartez.

Guzti honek, landa-eremuaren pobretzea ekarriko du eta denon bizi-kalitatean eragin larria izango du gutxi batzuen interes ekonomikoaren alde, berdez jantzi nahi duten trantsizio energetiko urgente baten aitzakiaz.

BESTE EREDU BAT POSIBLE DA

Klima larrialdiaren testuinguruan, beste eredu baten aldeko apustua egiten dugu. Tamaina txiki

eta ertaineko berriztagarrien instalazioetan oinarrituta, tokian tokiko elektrizitate beharrak asetzeko, jadanik degradatuta edo antropizatuta dauden eremuak lehenetsiz.

Gainera, honelako makro-proiektuek ez dute inondik inora CO2 emisioen murrizketarik bermatzen. Are gehiago, eraikuntzarako beharrezkoak diren material kantitate handiek aztarna ekologiko itzela dute.

ESKERRAK SINATZAILE ETA ERAGILEEI

Aramaixo Bizirikiek bihotzez eskertzen die alegazio hauek sinatu dituzten herritarrei eta beraien

babesa erakutsi diguten eragile guztiei. Hausnarketarako eta adostasunerako denbora gabe, inposaturiko zentral eolikoaren proiektua gauzatu ez dadin lanean jarraituko duela adierazi nahi

du, benetako trantsizio energetiko justu baten alde.

[Castellano]

ARAMAIXO BIZIRIK PRESENTA CIENTOS DE ALEGACIONES CONTRA LA CENTRAL EÓLICA DE STATKRAFT

La plataforma vecinal Aramaixo Bizirik ha presentado más de 400 alegaciones contra la central

eólica prevista por la multinacional noruega Statkraft en los montes de Aramaio y Eskoriatza. Estas alegaciones populares han sido presentadas en la Subdelegación del Gobierno en Álava,

donde se insta al Ministerio para la Transición Ecológica a que "no apruebe el estudio informativo del proyecto, ni lo declare de interés general y emita una declaración de impacto ambiental negativa".

Tal y como se recoge en las alegaciones, son incuantificables las afecciones a la población y a la

biodiversidad de Aramaio y Alto Deba de este macroproyecto enclavado en la sierra que une Durakogain, Ganborralde y Asentsiomendi.

8 aerogeneradores de 200 metros constituyen la que, hasta el momento, es la mayor central eólica proyectada en la CAPV. Provocará problemas de ruido, sombra intermitente causada por

los rayos solares al incidir en las palas de los aerogeneradores, pérdida irreversible de la biodiversidad y la destrucción del espacio natural, distorsionando totalmente el paisaje de Aramaio y sus alrededores.

Se industrializarán 782 hectáreas de bosques y montes y la electricidad generada se conectará

a la red eléctrica en Abadiño, a través de una línea de evacuación de alta tensión de 15 kilómetros que cruzará Besaide.

Todo ello contribuirá al empobrecimiento del medio rural y afectará gravemente a la calidad de vida de todos en favor del interés económico de unos pocos, con la excusa de una transición energética urgente que quieren pintar de verde.

OTRO MODELO ES POSIBLE

En este contexto de emergencia climática, apostamos por otro modelo basado en instalaciones renovables de pequeño y mediano tamaño, para satisfacer las necesidades eléctricas locales, y priorizando las zonas ya degradadas o antropizadas.

Además, este tipo de macroproyectos no garantiza en ningún caso una reducción de emisiones de CO2. Es más, las grandes cantidades de materiales necesarios para su construcción tienen una enorme huella ecológica.

AGRADECIMIENTO

Aramaixo Bizirik agradece de corazón a todas las personas que han firmado las alegaciones y a los agentes que nos han mostrado su apoyo. Seguirá trabajando para que no se materialice el proyecto de la central eólica impuesta, sin tiempo para la reflexión ni consenso, y a favor de una verdadera transición energética justa.

<https://eh.lahaine.org/aramaixo-bizirik-presenta-cientos-de>